

## Areatzako bainuetxean Igorreko Biziarteren erakusketak

16. orrialdea

## Hiru bizikleta martxa eta mendiko bi hile hasieran

Hilaren 7an Julen Zubero Lemoako I. Mendi Bizikleta Martxa izango da; 14an, Ubiden, V. Mendi Bizikleta Martxa eta 15ean, VIII. Iban Mayo Martxa Zikloturista Igorren. Ermiten XXVI. Mendi Martxa barriz hilaren 7an Zeanurin eta Areatzako II. Mendi Martxa hilaren 14an izango dira. **15. eta 17. orrialdeak**



## Tubi lastoa altxatzen eta lastoa botaten Euskal Herriko txapeldun

14. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 191

2013ko urri lehenengoaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Arteako jaiak eta azken txupinak

Hilaren 6an hasiko dira Arteako jaiak eta hiru eguneko egitarau prestatu dabe.

Hainbat ekitaldi gastronomiko eta jantzaldi izango dira plazan. Frontoian barriz kirola eta kontzertuak.

**H**olan, barikuan taloa, txorizoa eta urdaia; zapatuan, tortillak eta domekan txokolatea dastatu ahal izango dabez Arteara hurreratzen diranak. Frontoian, kontzertuak eta esku pelota eskolen erakustaldia izango dira, beste ekitaldi batzuen artean, bariku eta zapatuan hurrengo hurrengo.

Umeak Monda eta Lironda pailazoak egingo dabez barre batzuk Artean, eta Bilboko soinuak gustuko daukienak zitea daukie domeka goizean Los Cinco Bilbainos taldeagaz.

Urri lehenengoko Andra Mari jaiak Lemoako Elizondo auzunean be ospatuten dira. **5. eta 16. orrialdeak**




Arteako plaza izango dira jaietako hainbat ekintza.

### ARRATIA

## Etxeko konpostagailuak bananduko ditu Mankomunidadeak

Etxean konposta egiteko 500 konpostagailu baino gehiago bananduko ditu Mankomunidadeak. Konpostagailua modu egokian erabilteko formakuntza ikastaroa be jasoko dabe programa honetan parte hartzean dabenak. Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundu dau eta hondakin organikoek birziklapena gehitzea dauka helburu. **6. orrialdea**



### ARRATIA

## Itxaso Atutxagaz berbetan

Areatzako San Bartolome eleizan ospatu ziran abuztuaren 8an, Jabier Atutxa BBBko presidentea izandakoaren hileta eleizkizunak. Jente asko hurreratu zan EAJ-PNVkoari agur egitera. Bere alabea Itxaso Atutxa tartean.

Itxaso Atutxak, EAJ-PNVko Bizkai Buru Batzarreko presidentea, lotura handia dauka Arratia eta Zeberioagaz. EAJ-PNV eta Bilduren arteko hartu-emonak, Espainiako bandera, fracking-a, Arratiako industria eta andrazkoen parte hartze politikoaz egin dogu berba beragaz. **8. eta 9. orrialdeak**

**E P A**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, iraila osoa.  
Tlfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
IGORRE: Eleixaide 22. Eleizako lokaletan

### LEMOA

## Herri Kooperatiba jardunaldietan autoenplegurako tresna barria landu da

Abuztuaren 30ean hasita eta hilaren 1era arte Herri Kooperatibaren gaineko jardunaldiak izan ziran Lemoako Karabie Gaztetxean. Herri Kooperatiba autoenplegurako tresna moduan aurkeztu eben eta ekimenak hiru ildo daukaz: komunikazioa, elikadura burujabetzea eta txanpon soziala, eta hirurak landu ziran bertan. Auzolana be egin eben partaideak Lemoatxen. **5. orrialdea**

**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibxitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



**IGITIE****ARRATIAKO BASERRITAR AGROEKOLOGIKO GAZTEAK BILBOKO ASTE NAGUSIAN**

Bilboko Konpartsak konbidautu gutako batzuk animau ziran parte hartzean aurten txosnagunean ospatuten diran merkaduetan. Hara hurreratu ziran era guztietako personak, parrandan ibilitakoak, etxe-koandreak, turistak, ume txikiak eta familiak... Modu berezia da, euskal kultura, jaia eta janaria erakarteko, eta bide batez Arratiako ekoizpen ekologikoa bilbotarri eskeintzeko: elikagai bikainak, euskal kultureagaz lotuta, sasoikoak eta itxurosoak. Argazki ederrak atera zituen bisitariak. Landa eremua eta uria alkartzeko, elikadura burujabetzearen aldeko bazkarian 120 konparsero baino gehiagok hartu eben parte, baserritarrak prestatu-tako menuan: tomate desbardinaren dastaketea, ensalada fruta txikiakaz,

pate eta ahuntz gaztaiagaz egindako pintxoak (ogia goraiatu eben), odolsteak piperradeagaz eta postreerako jogurta memeladeagaz. Edateko Bizkaiko sagardoa eta euskal likoreak. A! atsedena eta bitamina piloa hartu eben! Baina garrantzitsuena menu horretan ez zan piramide nutrizionala ondo betetea, batez be, partaideak elikagaien jatorria ezagutzea zan, ekoizpenaren prozesua, ekoizlea bera (kasu gehienetan ostondu egiten gaitue: iragarkietan dana da bukolikoa eta polita, zergaitik ez dabez makinak erakusten, edo abere gizajoen bizi baldintza eskasak?) Janaria, benetako janariak, nutrienteez gainera, arimea dauka: gorputza eta arimea elikatzen ditu. Edozelan be, errealidade sozialagaz dago lotuta,

baserritarrak behar doguz, zertan geratuko litzateke euskal gizartea landa-eremu produktibo barik? Bertoko ekoizpen agroekologikoak hori lortzean dau: produktu bikaina, zapore garbiak, testura bereziak, kultureagaz lotuta herri txikien ekonomia sortzea.

Beste aldetik, penagarria da gure herriko jaietan, gure txosnetan, agian erispide ekonomikoagaitik bakarrik (baina ondo aztertu barik), edari eta janari eskeintza kalidade baxukoak izatea gehienetan (kalimotxo industria-la, txarri edota gaztaia, bokadiloak egiteko, inguruan lortu ahal dan merkeena, ez lokala...) Akaso lehendik hartutako ohitura desegokiak jarraituz, baina merezidu dau bultzadea emotea bertoko ekoizleai.

Horregaitik, eskerrak emon behar deutseguz jaietako komisinoen arduradunai, Bilboko, Arratiako komisinoakoi eta herritarri gudan ipinten daben konfidantzeagaitik.

**TELEFONO INTERESGARRIAK****Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak****09:00etatik 22:00etara****Urri lehenengoaren 2tik 8ra**

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Urri lehenengoaren 9tik 15era**

Traver. Bedia. J.A. Agirrearen enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Urri lehenengoaren 16tik 22ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Alderdiak  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Inigo Iruarizaga.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Inigo Iruarizaga.

**Publizidadea:** Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketeta:** Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.600 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Deslokalizazioari ez, Incoesa ez zarratu

Incoesako behargin ohi batek Higinio Artetari, Bediako enpresa honen lehendakari eta arduradun nagusiar:

Harro zagoz arratiar izateaz? Ezetz esango neuke. Zonalde honetako etorkizun onenetariko daukan enpresa zarratzen eta deslokalizatzen zabiz zeure indar guztiak. Langilei eskeinitakoa: soldatea % 40 jeitsi eta lanean Extremadurara bialtzea.

Ez dozu merezi orain dala urte batzuk Eusko Jaurlaritzak emondako saria. Beharginak Arratian lan egin eta bizi gura dabe, euren inguruan, etxeokandik hur. Badakie, esperientzia handia daukielako Incoesa bideragarria dala, sektore honetan lana dagoalako.

Hau guztiau, aurreko Gerentzia batek eta bere taldeak baieztatu eben eta horregaitik kanporatu zenduzan. Hareen ordez, inkonpetente eta lotsabakoz inguratu zinan. Honek zeure poltsikoak, eta bide batez eurenak bete ditue. Zuk zeuk daukazu horren erantzukizuna.

Aukera aprobetxauz, belarrietatik tirakada bat eskirolai. Badakigu nortzuk diran.

Orain eskari konkretu bi egin gura neukez: Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiar eta Bizkaiko Diputazioari: itxi berba politik eta pasau ekintzetara.

Arratiako jenteari, eta batez be gazteai: adi egon mobilizazioetara eta parte hartu ahal dozuen guztie-

tan. Burrakak zerikusi handia dauka gure seme-alaben etorkizunagaz.

Azkenik, besarkada handi bat nire lankide ohi guztiari aurrera daroen burruka eredugarriagaitik. Danon artean lortuko dogu.

Gora langileen burruka!  
Incoesa aurrera.

IÑAKI PUJANA

### Banderen gerrea

Urteak aurrera eta konfliktua beste parametro batzuetan ei da, halanda be zuztarrak nahiz funtsak, eta euren konfliktuaren hainbat adierazle eta ondoriok bertan dirau. Laurogei eta laurogeita hamareko hamarkadetan Estatuak Espainiako bandera Euskal Herriko udalteeetan ipintea inposatzen hasi zan. Kritikoak eta zorrotzak mantentzen ginen batzuk, bakea, la-saitasuna eta alkarbizitzaren izenean gure herriko jaietan piper-potoa udal balkoietan ipini ebenen aurrean. Traidoreak, espainolak, menpekoak eta abar luzea oihukatu izan deutsegu hainbat urtetan zehar. Urte horreetan guztietan, ikurmiña defendatzeko eta inposizioaren aurka be, herri mobimentua suspertu eta indartu gura izan dogu. Herri erantzuna, mobilizazioa abiapuntutzat jo izan dogu erasoari aurre egiteko. Ikurmiña defendatzeko bataila zehatz honetan, besteak beste, kolpatu, atxilotu eta kartzelaratuak izan gara, baina egindakoari esker Euskal Herriko udal gehienetan Espainiako banderak ezari barik jarraitu dau.

Espainiako ahalguztiduntasuna begi bistan ezarteko, Urquijo erregeordeak udal guztietan Espainiako banderea ezarteko agindua zabaldu dau. Honen aurrean, jakin badakit, erantzun tinko eta bateratua emoteko saioak, edo planteamentuak behintzat, egon dirana, baina azken baten, kartelak eta adierazpenetik harago behintzat, inor gitxi uko egin deutso inposizioari eta agindua jaso daben udal gehienetan, ezkutuan, gerizpean, edo txokoren baten piper-potoa ezari, ezari da.

Jakin badakit be, diskursoak egon badagozana edozein jarke- ra justifiketako. Kargu publikorako gaitasun-gabetzea, administrazio publikoan lan egiteko debekua, eta azken baten mehatxu, kezka eta egunerokoan eragin daikien arazo larriak aintzat hartu behar dira. Baina horreek guztiak, azken baten orain dala 30 urte guk geuk zorrotz eta bortitz kritikau izan genduzan arrazoi-atxikiak baino ez dira.

Nik neuk, behintzat, guztion eskubideak bermatzen dituen sinboloai baino ez deutset errespetua zor, eta Espainiako bandera horrek nire herri nortasuna eta eskubideak behin eta berriz ukatzen jarraitzen dauan estatu baten sinboloa baino ez da.

Ez daigun geure burua engainau! Espainiak ez deusku inoz doban eta borondatez libre itxiko. Nonoz, eta hobe atoan, planto egin behar deusagu Espainiako legalidadeari, eta horretan herriarri ezin deusagu eskatu gure militantzia kideai eskatzen ez deutseguna, gure arduradun politikoai eskatzen ez deutseguna. Tira! nik ez dinot inori eskatu behar jakonik martiria izatea, baina gaurko erronka honeri eusteko, militantzia politikoari zor jakon duintasun eta imotasunagaitik, inposizioari aurre egiteko gai diran arduradun-erantzule politikoak behar doguz. Bakotzak berea emon dajala!

Euskaldunok insumisino eta desobediencia baino ez deusagu zor Espainiako legalidadeari, eta une honetan balio handiko erremintak daukaguz eskura desobediencia zibileko estrategiak zabaltzeko. Espainiak berak antolatu dituan "udal demokratiko horreetan" independentziaren aldekoak, gehiengo gara. Hasi gaitzean insumisio izanik erantzukizun politikoa dogun erakundeetan. Hasi gaitzean eredu izaten! Jari daigun martxan urteetan predikau doguna!

MIKEL URRIZ

## ERETXIA



LEIRE AMURIZA  
Erizain laguntzailea

### Edadekoak jaietan

Udeagaz batera, herrietako jaiak be hemen daukaguz.

Hor ikusten doguz gazteak atzera-aurrera, txosnak montetan, play-back-ak ensaietan, karrozeta-ko azken detaileak preparentan... jaietan sano murgilduta. Askotan, beti ez esatearren, jaiak gazteak lotu izan doguz, baina danontzat dago lekua jaietan: ume, gazte, eta ez hain gazte diranentzat.

Lehen gure aitita-amamentzat, jaiak, mezea entzun eta familiarrentzat bazkaria prestatzea zan, eta hor amaitzen zan euren "jaie".

Urteak pasau ahala hori be aldatu egin da.

Gaur egungo, gure aitita-amamak, modernoagoak dira eta edozein gauzatarako prest dagoz. Jaietako egitaraua hartu, ia zer dagoan ikusi, eta kartetan egin behar dala, ba kartetan; paellea egin behar dala, ba paellea egin; parkean antzerkia dagoala, ba antzerkia ikusten; gauean musikea dagoala, ba plazara "agarru" batzuk jantzen egiten...

Orokorrean, gogotsu egoten dira, herrian mobimentua egoten da eta: barrakak, txureroa... badakizue ohikotasunetik urteteko.

Jaiak dirala eta ez dirala, atxakia ederra daukie batzuek, etxean sartu be ez egiteko -eta ez dot zentzu txarrean esaten- hor ibiltzen dira aspaldiko lagunak, txikiteoan, eta baten batzuk ordu txikietan kantetan ikusteko eta entzuteko aukerea be izan dot inoz.

Amaitzeko "jubiladuen eguna" herriko jai gehienetan egoten dan arren, euren jai ez dot uste egun horretara bakarrik mugatu behar dogunik, beste egunetan be aukerea badaukie eta, ondo pasetako eta gauza desbardinak egiteko.


Beste alde batetik, zahartzaro tristea, esakerea askotan entzun dot. Nahiz eta norberaren eskuetan ez egon, osasuna eukita, jaiakaz batera, dana hobeto erroten da, baita zahartzaroa bera be.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Orratz



Josteko erabilten dan pieza metaliko zorrotza izateaz gainera, beste esangura honetan be ezagutzen dogu: hego-pare horizontal bi eta gorputz luzea daukan insektua be bada orratz, uretako larba honek begi konposatu handiak ditu eta harraparia da. Holan esaten jako Arratian: orratz (Igorren), orratzuntzi, almandorratz/ amandorratz (Zeanurin), hegazkin-orratz, mariorratz, sorgin-orratz, begi-ataratzaile, su-burruntzi/suburduntzi eta txerren-burruntzi.



**LUMATUTEN****JON URUTXURTU****Gorbeia,  
Gorbeibusa eta  
saninazioak**

**A**zken bost urteotan, San Inazio egunean, Gorbeibus "debaldeko garraio zerbitzu ekologikoa" ipini dau Bizkaiko Foru Aldundiak, jentea Pagomakurrera eroateko eta kotxeak bertaraino igon ez daitezana. Jarten dabezan autobus guztiak Areatzan hartu behar dira eta bertan daukie helmuga be, nahiz eta igoerako bidea Arreatatik egin.

Zerbitzu horren helburua ingurumenaren gaineko eragina txikiagotzea ei da. Helburu hau ondo egongo da, baina nire uste apalean antolaketa aldatu egin beharko litzateke. Zergaitik jarri behar da Gorbeibus zerbitzu hori Areatzatik bakarrik? Pagomakurrekoa da Gorbeiar dagoan igoera bakarra?

Gorbeiar hainbat tokitatik igon daiteke, zoritarrez edo zorionez, jente askok ezagutu

be egiten ez dauzan lekuetatik: Ubidetik igon daiteke; Zeanurin, Saldropotik, Lanbreabetik, San Justotik, San Juanetik, Uribetik; Arreatatik igon daiteke; Orozkotik igon daiteke... Eta bide bakotzak aukera desbardinak eskeintzen ditu: batzuk luzeagoak dira, beste batzuk laburragoak; batzuk gehien bat pistetatik doaz, beste batzuk bidezidorretatik; batzuek aldatz gogorak daukiez, beste batzuk leunagoak dira...

Uste dot aukera desbardinak ezagutzera emotea eta bultzatzea ona dala. Gainera, bisitarien etorrerak euki daiken eragin ekonomikoa —tabernetan, jatetxeetan, okindegietan...— Areatzara ez ezik, beste herri batzuetara be zabalduko litzateke.

A! Eta arazoa San Inazioetakoa bakarrik da? Gabon Zahar egunean San Inazioetan beste jente edo gehiago ez da joaten Gorbeiar? Gabon Zahar egunean Pagomakurreraino kotxean joan daiteke eta saninazioetan ez...

**ZERTZEAN****MAITE YURREBASO****Titulu gabea****BEGI TXINDORRA**

**E**z da plan txarra oporretarako lorategian patxada ederrean BEGITU irakurtea. Asier Garciak bialdu deusku argazki hau, kanpora joan barik be badagozala oporrak esanda. Bai horixe! Opor usaina dario erretratuari eta argi dago badagoala jentea, ume honeen moduan, ondo pasetan dakiana hurreko gauzai be plazerra aterata. Zoriona jar-kera bat izan daitekela.

Antzeko plazerra egongo da lehiaketa honen irabazlearen eskura. Izan be, Nafarroako landetxe baten astegoiena pasetako aukerea emoten dau sariak eta ume honeen antzeko plana egin daiteke bertan. Urri lehenengoan ondino argazkiak bialtzeko azken aukerea daukazue, epaia hilaren atzenean emongo da eta.

Lehiaketan parte hartzeako bialdu zuen argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera, argazkiaren titulua eta zuen izen-abizenak eta argazkia non aterata dagoan esanda.

Zorte on!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

**agoa** hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igoine-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zorobako 101  
R.F.S. 21/06

**Ametzola Landetxea**  
Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
[www.ametzola.net](http://www.ametzola.net)



## ARTEA

# Los Cinco Bilbainos eta metal musikea jaietan

Musika ugaria Arteko jaietan. Jantzaldiak bariku eta zapatuan Luhartz eta Arizgoiti taldeagaz egongo dira eta Los Cinco Bilbainos-en emonaldia domekan. Bariku gauean frontoian metala. *Crows crowd fest* izeneko festan, metal kontzertuak izango dira 21:00etatik aurrera herriko frontoian.

### Erredakzioa

Zortzi talde izango dira bertan, gehienak Bizkaikoak, baina ez bakarrik. As Light Dies Madriletik datoz euren avant-garde metala eskeintzera. Abra Ke Amputar (harcore punk), Shrapnel Meat (Trash), Blood as inr (street punk), Jardin Inferno (rock), Preokupales (punk), Lyrikan Style eta DJ Funi eta Noxbleed (Death/Trash metal) be egongo dira Artean, metal gau honetan.

### Urri lehenengoak 6, barikua

17:30ean, txupina eta buruhandiak.

18:30ean, Elektrotxarangea.

20:30ean, taloa, txorizoa eta urdaia plazan.

21:00etan, kontzertuak frontoian.

22:30ean, jantzaldia Luhartz taldeagaz.

### Urri lehenengoak 7, zapatua

11:00etan, haur parkea frontoian.

14:00etan, Tortilla Txapelketea eta bazkaria plazan.

17:00etan, pailazoak: Monda eta Lironda.

18:30ean, Arratiako esku pelota eskolen erakustaldia.

20:00etan, play-backa.

22:30ean, jantzaldia Arizgoiti taldeagaz.

02:00etan, DJ Andeka. Mozorro gaua eta bideojolasak.

### Urri lehenengoak 8, domeka

11:00etan, mezea.

12:30ean, Los Cinco Bilbainos-en emonaldia.

17:30ean, Mus eta Briska Txapelketa

19:30ean, kale antzerkia. Hiru (Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga).

21:00etan, txokolatea plazan.



Los Cinco Bilbainos taldeko kideak.

## LEMOA

# Herri Kooperatiba ekimena aurkezteko jardunaldiak Lemoako Gaztetxean

Abuztuaren 30etik eta hilaren 1era arte izan ziran Lemoako Karabie Gaztetxean Herri Kooperatibaren inguruko jardunaldiak.

### Erredakzioa

Hainbat lekutako jentea etorri zan Lemoara, ekonomia alternatibo bat, modu autogestionauan aurrera eroateko eredu barri baten bila, edo hau praktikan ipinteko formakuntza jasoteko.

Herri Kooperatiba ekimena "Auzolan ekimenetik sortu zan orain dala urte bi eta herri ekimen autonomo moduan funtzionetan dau orain" azaldu deutso BEGITURI Lier Unanue Herri Kooperatibakoak. Herri Kooperatiba "jarduera ekonomikoa babesteko tresna bat

da". Orain urtebete martxan ipini eta lehenengo hileak formakuntzan pasa ostean, hiruhileko bi daroaz funtzionetan ekimen honek. 30 bat bazkide eta 15 bat proiektu daukiez. Horreetatik 8 martxan.

Hiru ildo daukaz ekimenak: komunikazioa, elikadura burujabetza eta txanpon soziala eta hirurak landu ziran Lemoan. Jardunaldien helburuetako bat honeek bultzatzea zan eta.

Auzolana be egin eben partaideak. Lemoako Udalak eta Memoria Historikoa berreskuratzen dagoan batzorde herrikoiak, abuz-

tuaren 26tik hilaren 1era, auzolana antolatu eben Lemoateko baseleizea berreskuratu eta aterpe bihurtzeko. Jardunaldiotako partaideak parte hartu eben lan honeetan.

### Jarduera ugari

Kooperatiba desbardina da Herri Kooperatiba. "Persona batek zerbaist produziduten dauanean tresna juridiko bat behar dau" Administrazioagazko hartu-emonetarako. Bazkideak autoenplegurako erabilten dabe kooperatiba hau. "Orain arte edo autonomo edo enpresa bezala egin behar izan dabe autoenplegurako aukerea egin dabenak. Herri kooperatibeagaz hori ekiditen da, ze kooperatibea arduratzen da arlo juridiko horretaz". Kooperatibearen bitartez zerga gitxiago pagau behar dabez bazkideak eta diru asko aurrezten dabe. Izan be, fakturretan dauana kooperatibea da.

Nekazaritzako proiektuak, konpostajea, zerbitzu administratiboak, uri baratzak eskeintzen dauan enpresa bat, margolari bat eta landare medizinalakaz ukenduak egiten dituenak dira momentuz Herri Kooperatiba erabilten daben batzuek.

## IGORRE

# Aurrekontuak egiteko prozesua martxan ipiniko da hileon

### Erredakzioa

Igorren 2014 urteko aurrekontuak modu parte hartzailean egiteko prozesua zabalduko da hileon. Auzo batzarrak egingo dira eta bertan "zelan gastau herriko diruak" ebatziko dabe eta igazko batzarretan herritarrek proposatutako ekimenak zelana dagozan azalduko dabe udal ordezkariak: zer egin dan, zer ez eta zergaitik. Herritarren ekarpen eta eretxiak be jasoko dira batzarrotan.

Igorren 2007an hasi ziran au-

rrekontuak egiteko auzo batzarrak egiten. "Guk gure bidetari jarraitzen deusagu, Igorren 2007an hasitako bidetari, herriko diruak zelana gastau herritar guztien artean ebatzeari, krisiagaitik diru sarrerak murriztu eta Madriletik udaletako autonomia mugatu gura daben arren" dino Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Batzarrotan parte hartzean animau gura dauz alkateak igorretarrak, baita "beste udal eta alkateak, herriak danon erakarpenagaz eregiten joateko".

## IGORRE

# Ikurriñearen inguruko ekimenak planteau dauz Udalak

### Erredakzioa

Espainiako bandera ipinteko "presino mediatiko eta judizialaren aurrean" Igorreko Udalak ikurriñearen inguruko ekimenak planteetako 1979tik hona alkate eta zinegotzi izan diranakaz bilera egin eban garagarriean, "Herri bakotzak berea, geurea ikurriña, inposiziorik ez" lelopean batuta.

EAJ-PNVk ez eban alderdi lez ekimen honetan parte hartu eta bilera haretan EAJ-PNVgaz bile-

rea egitea ebatzi zan, ikurriñearen aldeko ekimen bateratuak lantzeako. Izan be, sinboloen inguruan Igorre mailan tradizio politiko desbardinen artean adostasuna dauala dinoe Udaletik eta Igorreko EAJ-PNVk bere idatzian ikurriñeagazko erakusten dauan jarkerea.

Bilera hori abuztuaren amaieran egin bazan be, hainbat iturriren arabera, batzar haretan partaideak ez eben ekimen bateraturik adostu.

ARTEA  
Arteko Udalak  
Gora Andra Mariak!  
JAI ZORIONTSUAK  
OPA DEUTSUEZ

## ARRATIA

## Nekazaritza eta abelkuntzan sortutako hondakinak birziklauko dabez



Arratia.

## Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek Arratia-Nerbioiko 200 ustiapen ingurutan sortzean diran hondarrak birziklatzea dauka helburu, Europar Batasunaren araudia betetzeko. Abuztutik aurrera, edukiontzia ipinten hasi dira interesa agertu daben ustiapenetan.

Maiatzean proiektu pilotoa egin zan eta plastikak, ontzi fitosanitarioak, artzain elektrikoko pilak eta xiringak, beste gauza batzuen artean jaso ziran birziklatzeko.

Orain behin betiko ipini gura dau hau Gorbeialdek. Hori dala eta, proiektuaren onuradunak jarriko dira kontaktuan, eta interesatutako ustiapenetan edukiontzia ipiniko ditue. Edukiontzia grisa izango da plastiku eta sokak jasoteko. "Beteta dagoanean baserritarra Gorbeialdegaz ipini beharko da kontaktuan, hondakinok erretiratu daiguzan" dino proiektuaren arduradunak, Sonia Barrondo Gorbeialdekoak.

## ARRATIA

## Inplikautako eragileak egingo dabe Lehen Sektoreko Ekintza Plana 2014

## Erredakzioa

Gorbeialde Arratia-Nerbioiko Landa Garapenerako Alkartek, Lehen Sektoreko Mahaia sortuko dau, Lehen Sektoreko Ekintza Plana 2014 inplikautako eragileak egin daien. Mahai hau urri lehenengoan osotuko da. Hau egin ahal izateko azpisektoreko mahaiak egin ditue.

Nekazariak, abeltzainak, basogintzako teknikariak, alkartek, udalak, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia alkarregaz lanean dagoz ekimen honetan. Mahai honen helburua "benetako beharizanak jaso eta eragileen kezka eta arazoai erantzuna emongo deutesen kudeaketa plan bat modu parte hartzailean egitea" da, Bingen Larizgoitia Gor-

beialdeko gerentearen esanetan.

## Lehen sektoreko eta azpisektoreko mahaiak

Gorbeialdek sektore publiko eta pribaduaren arteko foroak ipini dauz abian, lehen sektorea bultzatzeko proposamenak eta ideak adierazoteko.

Sektore publikoari jagokonean, hau da, udalak, hiru ordezkari ditue mahai honetan; Gorbeialdeko lehendakariak, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiak, barriz, ordezkari bana. Sektore pribaduak, hau da, abeltzainak eta nekazaritzako elikagaien enpresak ordezkari bina daukiez eta alkardeak, nekazariak eta Basogintzak ordezkari bana.

## IGORRE

## Udalak herriko behargin bi kontratau ditu

## Erredakzioa

Administrari laguntzaile lanposturako eta peoi beharretarako azterketak egin ostean, Igorreko Udalak lan boltsa bi zabaldu eban udalean sortzean diran beharizanak beteteko eta behargin bi kontratau ditu.

Udalak jakiarazo dauanaren arabera, berrogeta hiru persona aurkeztu ziran administrari laguntzaile posturako eta hamahiru peoi lanposturako frogetara. Udal administrari lanpostua ordezkari bat beteteko izango da eta 2014. urteko hasikerararte luzatuko da, eta peoi lanpostua behin betiko lanpostua atera arte mantenduko da.

## BEDIA



Bediako errotonda barria.

## Biribilgune bat amaituta, beste bietan lanean jarraituten dabe

## Erredakzioa

Abiadura moteltzeko istripu ugari Bedia eta Lemoako tartean, hiru biribilgune egiteko lanak hasi zituan Bizkaiko Foru Aldundiak orain urtebete. Bilbotik hasita lehenengo amaituta dago eta gitxi falta da hirugarrena, Lemoan berau, amaituteko. Lau hilabete barru, lanok amaituta egongo dira hasikerako aurreikuspenak beteten badira.

Lehenengo biribilguneak San Lorentzo eta Astitze auzunetara eta kanposantura urtekerak ditu eta bertan egoan bisibildade

gitxiko bidekurutzea kentzeako egin dabe. Bigarrena, Jandoniz kalearen bidekurutzean egingo dabe eta Elexalde auzunean sartzeako modua be aldatuko dau. Hirugarrena, barriz, Ibarra auzunearen parean dago. Jauregi (Yeuri) auzunerako eta Mendieta poligonorako urtekerak izango ditu errotonda honek.

Lanok 4,2 miloe euroko aurrekontua izan arren, 3,4 miloetan adjudikatu ziran. Errepide honetatik egunean 15.000 ibilgailu inguru pasetan dira eta trafikiko hau moteltzeko helburua daukie biribilguneok.

## ARRATIA

## Konpostagailuak banandu eta trebakuntza ikastaroak emongo ditu Udalen Mankomunidadeak

## Erredakzioa

Landa inguruetan, eta batez be, familia bakarreko etxebizitzetan uri hondakinen frakzio organikoa modu egokian tratetako Arratiako Udalen Mankomunidadeak (AUM) etxean konposta egiteko konpostagailuak bananduko ditu. 360 litroko edukierako 500 konpostagailu baino gehiago bananduko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiak % 100ean lagundu dau diruz. Proiektuak 138.000 euro inguruko kostu osoa euki dau. Helburua, birziklapen maila % 50era hurreratzea da.

Arratiako Udalen Mankomuni-

dadeak birziklapena gehitzeko bi "frontetan" dabil. "Alde batetik, sensibilizazio eta informazio arloko ahalegina, 5. edukiontzia-aren bitartez sukaldean prestatu bako landare-hondakinak gaika batzeako zerbitzua handitzeko, eta, bestetik, landa-inguruetan eta familia bakarreko etxebizitzetan uri-hondakinen frakzio organikoa modu egokian tratetako ahalegina, etxeko konpostajearen bitartez" dinoe Mankomunidadeak.

## Trebakuntza ikastaroak udagoienean

Herritarrei konpostagailuaren erabilerearen gaineko laguntza



Konposta.

emoteko trebakuntza jardunaldiak antolatuko dira udagoienean. Izena emoten daben gutxiak jaso behar dabe formakuntza hori, gero modu egokian erabiltzeko konpostagailua. Jarraipen konpromiso bat be egin behar izango dabe, denpora baten erabiliko daben konpromisoa, hain zuzen be.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Europako Araudiak ezarritako helburuetara, hau da, % 50eko edo gehiagoko birziklapen mailara hurreratzea lortu gura da ekimen honegaz.

## IGORRE

## Eskolea barriztatzeko lanak amaituta

## Erredakzioa

Kurso amaieran batzartu eta eskolako arduradunak eta Igorreko Udalak Inazio Zubizarreta eskolako komun danak berregitea adostu eben. Eraikin nagusiko komun danak berregin eta handitu dira. 80.000 euroko kostua izan dabe lanok. Beinat Anzola alkatearen esanetan, eskolearen "egoera ona bermatzea lehentasuna da" Udalarentzat.

Komunen urritasuna konpondu arren, Udalak "ume kopurua gero eta handiagoa dala eta leku falta benetako arazo bihurtu dala" be ekarri dau gogora.



## IGORRE

# Igorre kantari Inbiu 2013 Euskerearen aldeko Eguna

Badator 11. Inbiu jaialdia, hil honen 21ean izango da eta CD-DVDaren aurkezpenak emongo deutso hasikerea euskerearen aldeko egunari, goizeko 12:00etan.

### Erredakzioa

Euskera Planeko kideak buru be-larri ibili dira Euskera Egunean aurkeztuko dan CD-DVD baten prestaketan, baina ez dira bakarrak izan; izan be, Igorreko kultur eta kirol taldeen parte-hartzeagaz osotu dabe CD-DVDa. Alkarte bakotzak kanta herrikoi bat euki dau eta abestiari abotsa ipini, gidoia egin, *attrezzo* prestatu eta grabau behar izan dabe. Grabazioak bagilean egin ziran Kultur Etxeko Lasarte Aretoan eta udan montaje lanetan ibili dira CD-DVDari balio erantsia emoten deutsoan osagaia sartzeako: ordenagailuz egindako marrazkiak. "Emoitzea bitxia da" dinoe Euskera Planekoak. Hori

holan dan ikusteko Kultur Etxeko Lasarte Aretora hurreratu beharko dira interesa daukienak.

Igorre kantari dino aurtengo Inbiu egunak, CD-DVDaz gain, badalako beste helburu bat be. "Urritik hasita kantu pote ekimena ipini gura dogu martxan Euskera Planeko kideok, CD-DVDaren aurkezpena aprobetxautu Igorreko kaleetan euskal kantak taldean abesteko tradizioa berreskuratu eta sustatuteko" dinoe.

### Egitaraua

Aurkezpena bertaratuten diran guztientzako kopautxo egongo da, eta horren ostean herri bazkaria egingo da Lasarte plazan; euririk egin ezker, eskolako aterpean

izango da. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira Gau Loran, Jubiladuen tabernan eta AZ Rugby tabernan. Prezioa: helduentzako 12€ eta umeentzako 8€.

Bazkalostean kantu saioa eta jarriraian AMEK (Arratiako Merkatarien



Inbiu eguneko bazkaria.

Elkarteak) antolatuta, 18:00etan Jokaldi taldeagaz erromeria egongo da.

Jantza nahi beste egin eta indarrak berreskuratzeko eta eguna ondo amaituteko, 20:00etan, txokolate eta bizkotxoak egongo dira danontzat. Azken hau Beinkek, Igorreko Merkatarien Euskera Taldeak antolatuta.

"11. urte honetan be, herri go-goa aktibau gura dogu Euskera Planekook, pasibotasuna alde batera itxi eta aktibo izan gaitzean, euskeraren alde egotetik euskeraz bizi izatera pasau gaitzean". Ildo horretatik, Euskera Planak herritar guztiak animau gura ditu "euskeraz bizi gura dot" kamiseta jantzita joan daitezcan Inbiu 2013 jaialdira.

## BEDIA

# Incoesako hustutze prozesua gelditzea lortu dabe momentuz

### Erredakzioa

Incoesako makinak eta produkzioa Bediako plantatik abuztuan ez ateratea lortu eben beharginak enpreseagaz izandako negoziazioan esker. "Momentuz lortu dogu bertan egoana mantendutea. Negociazioan egon dira baina apurtuta dagoz barriro" Juan Karlos Vizan LABekoak azaldutakoaren arabera. Hilaren 4an, daukie hurrengo asanbladea beharginak.

Alfusek be burrukan jarraituten dau. Udan be manifestazio eta kamino ondoko konzentrazioan egiten segidu dabe, baina enpresearen aldetik ez dabe ezer jaso LABeko Tamara Martinek jakinarazotakoaren arabera. Alfuseko beharginak lan baldintzak eskatu eta hainbat langile kaleratu gura dauan EEE baten kontra dagoz burrukan.

## ARRATIA



# Sare sozial eta teknologia barrien erabilerearen inguruan itaunka

### Erredakzioa

Oraingoan gure irakurleen teknologia barrien erabilera maila jakin gura dogu eta horregaitik hauxe izango da hile honetako itaunka: Sartuta zagoz sare sozialetan? Zer erabilten dozu? Eta aukeratzeko emoten doguzan erantzunak honeek dira:

1-. Danerik. Hiru gitxienez: bloga, Facebooka eta Twitter erabilten do-daz, (esate baterako).

2-. Horreetatik bi erabilten dodaz

(bloga eta Facebook, Facebook eta Twitter...).

3-. Bat baino ez.

4-. Ez dot holangorik erabilten.

### Eguraldiak eraginik ez

Erantzun izan daben irakurleen artean, eguraldiak eragina izan dau oporretarako lekua aukeratzeko orduan (% 42,85). Diruak, edota ez diruak ez eguraldiak ez dabela eraginik izan esan dabenak % 57,15a izan dira.

## IGORRE

# Narruzko jakak eta motor orroak urri lehenengoaren 7an

### Erredakzioa

Arratiako motorzaleak urteroko hitzordua daukie hilaren 7an Igorren, Arratia Motor Taldeak antolatutako XII. Konzentrazioa izango da eta egun horretan. Donibane tabernan batuko dira, Arratiatik buelta bat emon motor gainean eta iluntzean Eskean Kristo, Varapalo eta Rotabator taldeak kontzertuak eskeiniko ditue.

Jaia arrastiko 17:00etan hasiko da eta izena emoteagaz batera,


lehenengo 150 partaideak kamiseta bana jasoko dabe. Gero, Arratiatik ibilbidetxo bat egingo dabe, geldialditxo batez Area-zako bainuetxean pintxo dastaketa bat egiteko. Bueltea egindakoan Igorren parrilladea eta iluntzeko 20:30ean, kontzertuak. "Geugaz batera parrillada herrikoian parte hartzerantz animetan zaituegu" dinoe antolatzaileak. Izan be, parrilladea doban izango da Donibane tabernara hurrerazten diran guztientzat.



Iguzko motorzaleen konzentrazioa.

## AREATZA

# AEK-k Areatzan be emongo ditu eskolak



### Erredakzioa

Areatzako Udalak euskerea ikasi gura daben areatzaiztarri laguntzeko asmotan eta lan horretan erreztasunak ipinteko asmotan, hitzarmen bat egin dau AEK-gaz. Horrerik esker, herrian bertan euskerea ikasteko aukerea izango dabe areatzaiztarriak.

Ikasturte honetan Areatzan euskera ikasi gura daben taldea sortzean baldin bada, herrira bidaliko dau irakaslea AEK-k. Informazio gehiago jasoteko eta inskripzio orria beteteko Udalerara jo behar da urri lehenengoa amaitu baino lehen.

Hilaren 2an zabaldu eban AEK-k matrikulazio kanpainera Arratian, izena emon gura dauan Kubulu Euskaltegia deitu edo bertara jo behar dau.



## ITXASO ATUTXA

# EAJ-PNV eta Bilduren arteko hartu-emonak "bereziki gatzak" dira Arratian

Zeberion bizi da Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentea eta lotura handia dauka Arratiagaz. Izan be, gurasoak arratiarrak ditu eta Areatzan pasetan ebazan udak txikitan. Abuztuaren hasieran hil jakon aita, Jabier Atutxa, BBBko presidentea izandakoa bera be, eta hileta eleizkizunak Areatzan izan ziran.

Hurretik ezagutzen dau Itxaso Atutxak, beraz, Arratiaren egoera ekonomiko, politiko eta ideologikoa. EAJ-PNVren posizionamentuak azaldu deuskuz BBBko presidentek.



Itxaso Atutxa.

**Erredakzioa**

**Lotura handia daukazu zuk Arratiagaz. Zeberion bizi zara, baina gainera zure aita zanak lotura handia eukan Areatzagaz, han hazi zalako. Despedida jentetsua izan eban abuztuaren 8an San Bartolome eleizan.**

Bai. Hasikera baten, familiaren asmoa izan zan hiletak Deustun egitea, Deustun bizi izan garalako hainbat urtetan eta gurasoak han bizi ziralako, nahiz eta biak arratiarrak izan, ama Igorrekoa da eta. Baina atzenez Areatzan egitea ebatzi genduan, aitarentzat Areatza oso-oso berezia izan dalako

beti. Udak han pasetan genduzan txikitan. Hunkigarria izan zan. Hainbat eta hainbat lagun ikusi genduzan! Aitak hainbeste lagun eta horrenbeste maitasun jaso dauala ikustea polita da. Gogorra eta hunkigarria izan zan, bai, baina polita be bai.

**Aita EAJ-PNVko Bizkai Buru Batzarreko presidentea izan zan, zeu be bai. Familia tradizioa da?**

Ez, ez. Kasualidade hutsa. Aitak lan egin eban beti, lehenengotik itsasoan eta gero Bilbon, itsasoagaz zerikusia eukan enpresa baten. Eta nik nire lana neukan, 25 urte egon naz ikusentzunezko munduan. Alderdi barruan, ahal

izan dodan neurrian lan egin dot, baina besterik ez. Nire sasoko jentea dago momentu honetan alderdiko hainbat erantzukizun handiko postutan eta neu be hor nago. 25 urteko ibilbide profesionala itxi eta hemen nago buru-belarri lan honetan. Baina ez da tradizioa. Alderdikidea izatea akaso bai, baina hemen egotea ez.

**Arratian partidu bi dira, nagusi baino gehiago, ia bakarrak: EAJ-PNV eta Bildu. Partidu bi horreen arteko hartu-emonak gatzak dirala esango neuke. Adibide moduan, Bilduk ataratako Lemoako Liburu Beltza. Horrek badauka eraginik beste herrietako udal hartu-emonetan eta Mankomunitatekoetan? Zelan baloretan dozu EAJ-PNVk Arratian egindako eta egiten dauan diru publikoaren gestinoa?**

35 urte egon gara Arratiako hainbat herritako ardura politiko eta ardura instituzionalagaz eta uste dot gestinoa ezin hobea izan dala. Ikustea baino ez dago orain dala 30 urte zelan egoan Arratia eta zelan dagoan orain.

Egia da sano gatzak egiten jakula Bildugaz beste hartu-emon mota bat eukitea, eurek ebatzi dabelako gainera, hartu-emon holangoa izatea, Lemoako adibidean ikusten dan moduan. Guk EAJ-PNV moduan, paktu, akordio eta alkarlanerako jarkerea daukagu. Benetan sinisten dogulako horretan, baina ikusten dogu Bil-

dugaz oso gatzak egiten jakula. Eta Arratian, bereziki gatzak.

Gure lehenagoko urteetako gestinoa zapuztu, zikindu eta itxura txarrez agertu gura dabe Bildukoak eta nik uste dot edozein arratiarrak ikusi daikela 35 urteetan hemen udaletxeetan eta Mankomunitatean ikaragarriko lana egin dala. Baina beti gagoz zabalik, beste alderdi politiko batzukaz, alkarlanean gauzak egiteko. Gizarte hau oso anitza da eta ez daukagu ezelango arazorik beste batzukaz hartu-emonetan jartzeko. Dana dala, gogoan alderdi biok izan behar dogu eta momentuz Bilduk Arratian erasorako itxurea hartzean dau eta ez akordiorako gogo itxurea.

**Kontrapuntu moduan, Bilduk eta EAJ-PNVk bat egiten dozue ikurriñaren inguruan, bandera espainola ipinteko atzenengo presinoen aurrean. Igorren bilera bat egin dozue baina ez dozue ekimen bateraturik adostu. Zergaitik?**

Nik ez dot hain bateratua ikusten Bildu eta EAJ-PNVren arteko ibilbidea ikurriñaren asuntu honetan. Hainbat urtetan, ez zan orduan Bildu baina Ezker Abertzaleko formazioak, erasotu gaitu, legea bete eta Espainiako bandera ipinten gendualako udaletxeetan. Ikaragarriko erasoak, berbalak eta fisikoak. Bilboko jaietan, esate baterako, gure gazteak jartzen daben Gogorregi konparsan, urtero-urtero bariku nagusian defendatzera joaten ginan erasotua izaten zalako. Arpegiratzeko euskuen Espainiako legearen menpe ipinten ginala, aguantau barik. Bildu instituzinoetara heldu da eta inongo problema barik, Espainiako banderea jarri dau udaletxeetan. Batzuetan gauean jartzen da eta holan hurrengo egunerako jarrita dago. Legea betetzen dabe. Eta euren azalpena beti da legea bete beharra daukiela. Besteok be bai. Hemen inork ez dau jartzen, abertzale batek ez behintzat bandera espainola nahita. Inposizino bat dalako ipinten dogu. Beste gauza batzuk egiten doguzan moduan.

Gure bizitza instituzionalean parte handi bat Espainiako lege barruan egiten dogu. Halabeharrez. Behartuta. Inperatiboz. Ez daukagulako beste urtenbiderik aurrera egin gura badogu.

Sententziak heltzean diranean, behartuta gagozenez jarri egiten doguz banderak eta gero, normalean, ekimen txikitxo bat egiten dogu ikurriñaren inguruan herriko leku esanguratsu baten, adierazoteko aberri bakar bat daukagun moduan, ikurriña bakarra daukagula geure burua errepresentetako. Bildukoak gobernatzen daben udaletxeetan arazo barik jartzen dabez. Gure moduan azken tramitazinora arte edo sententzia emon arte etxonda. Baina legea legea da eta ez guk ez besteak ez dogu legearen kontra egiten badakigulako jakin, ze ondorio izan geinkezan, eta zigorrak oso gogorrak izan daitezalako udaletxeetan daukaguzan ordezkariatzat.

**Arratiako industriak momentu latzak bizi dauz. Enpresa asko zarratu dira eta beharginak erakundeai laguntza eskatu deutsee enpresegazko negoziazioetan. Batzuetan, Cementos Lemonaren kasuan, esaterako, erakunde bitartekaritza lanak arrakastatsua izan dira. EAJ-PNV agintean dago Mankomunitatean, BFA eta Jauraritza. Zer egin daieke eta zer egiten dau enplegua suntsitu ez daiten? Zein da bidea gure herria pobretu ez daiten?**

Jauraritza, Aldundiak, eta gitxiago Mankomunitateak daukien gaitasuna da, ez horrenbeste lanpostuak zuzenean sortzeakoa, baina bai neurri zehatz batzuk hartzeakoa, ekonomiaren egoera hobetu daiten eta batez be enpresarioen konfidantza sortu edo gehitu daiten eta euren dirua eta proiektuak bertara ekarri daitezkan.

Eta gero bitartekaritza lanak. Sarritan eta batez be dirua kanpotik ekarri behar danean, enpresarioak behar dabe konfiantza bat, ziurtasun bat, estabildade bat

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

**Lehendakari Agirre, 8 behea**  
48140 Igorre

**Tfnoa: 94 631 80 04**

**ASESORIA Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIOTERAPIA**

**Balneario Areatza**

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

[www.gruposasobide.com](http://www.gruposasobide.com) Tel.: 94 657 54 50





egongo dala, bai langileen aldetik bai instituzino publikoen aldetik. Egoera politiko eta ekonomikoa lasaia izango dala jakin behar dabe, zergen aldetik ez dabela sorpresarik izango hurrengo urteetan... hori guztia behar dau inbersore batek bere ahaleginak etekin bat euki dagian.

Instituzino batek gauza asko egin daitezke eta hori araututa dago. Gu Fiskalidarearen Akordioa lortzeako nahian gagoz sozialistakaz eta horrek bideratu beharko leuke inbersinoak errezago etorri daitezkan. Langileak be, malgutasunez jokatu dabe gehienetan, euren eskubideak defendatuz baina erantzukizun handiz.

Eta alkarlana be behar da partidismoen gaintetik. Azken finean ekonomiak ez dauka horrenbeste kolorerik, langileok langile gara eta beharrak antzekoak dira etxe guztietan. Konsensu askoz zabalagoa behar dogu.

**Fracking-a egiteko baimen eta emakidak bete-betean hartzean dabe Arratia. Ez dago oso argi zein dan EAJ-PNVren jarkerea teknika honen aurrean. Ze energia ere-**

#### **du defendatzen dau?**

Guk fracking-aren asuntuan lehenengo eskatzen doguna ikertzea da eta horretan gagoz. Ikertu daigun ondo, ze fracking mota desbardinak dagoz. Dana ez da fracking-a eta beste herrialde batzuetan ikusi dogu ingurumenari eta batez be gure lur azpiari horrenbesteko kalterik egiten ze deusien teknikak erabilten dabela.

Noren eskutan egongo dan hori aurrera eroatea ala ez be jakin behar dogu. Erantzunaren zain gagoz, baina ziurrenik Jaur-laritzaren eskumena oso txikia izango da, ze lurraren parte baten esplotazino eta ikerketarako ahalmena Espainiako gobernuaren esku dago.

Energiatan pobreak gara, behartuta gagoz beste bide batzuk topatzera. Baina ikusi behar dira teknika desbardinak eta eskumena daukagun ala ez horretan.

**Esaten dozunean beste herrialde batzuetan, zein herrialdeetan eta zer esan gura dozu fracking mota desbardinak dagozala esaten dozunean. Arbetetik gasa ateratzeaz gagoz berbetan, ezta?**

Bai horretaz. Beste lurralde batzuetako enpresak etorriko dira, eta atzenean Espainiako gobernuaren bitartez lortu leikie horren esplotazinoaren baimena. Orduan bermatu beharko doguna zera da: ze aukera daukagun, ikusteko ze teknika jarraituko da-

ben, eta etekinik izango dauan ala ez guretzat eta ze kalte ingurugiroan.

Ez dago gure esku erabat.

#### **Egongo da ezer gure esku?**

Beharbada egongo dana izango da lizentzia emotea lehenengo esplorazinoak egiteko, ez horrenbeste gero ustiatzeko, baina bai lehenengoko ikerketak egiteko. Atzenean hor udaletxe batzuk eukiko dabe aukera hori baina horretarako bakarrik.

#### **Eta udaletxeak ezetz esan ezkerro, gelditu ahal izango da?**

Ez nago ziur. Ez dago aukera handirik. Gu alderdi barruan eta gobernuan gaia begiraten gagoz, arduratu egiten gaitu eta. Batetik suposatzen dalako leku batzuetan ustez kalte handiak izan dirala, baina beste batzuetan ez horrenbeste eta etekin ekonomikoak garrantzitsuak dira. Baina etekin ekonomikoak eta kalteak neurtu egin behar dira. Etekin gurak ezin dau edozer egiteko eskubidea emon.

"Fracking-ean,

seguruenik,

Jaur-laritzaren

eskumena oso txikia

izango da"

#### **Orduan zelan posizionatzen zarie?**

Gu, momentuz, ikertzen gagoz.

**EAJ-PNVren historian andrarik boteretsuena ei zara. Zelan baloretan dozu andrazkoen parte hartze politikoa? Non somatzen dozu erresistentzia gehien andrazkoak boterea hartzeako orduan? Horren kontrako burrukarik egiten da EAJ-PNVren barruan?**

Nik uste dot boterea baino erantzukizuna dala gehiago. Erantzukizun handia da, 20.000 bazkide baino gehiago daukaguz, ehun eta piku uriburu batzar, 80 udalete, Bilboko Udala, Aldundia... Nik uste dot beharbada, nire aukeraketea izan dala eredurik onena ikusteko normaltasunez heldu dala atzenean BBBko presidentea andra bat izatera. Nik uste dot perfil baten bila egon dirala eta neuk emoten nebala perfil hori. Gero eta oztopo gitxiago ikusten dodaz, ez dot ikusten erresistentzia konkreturik gizonengan. Baina atzenean gizarteak...

#### **Gizartearen egituran dagoz erresistentziak, ezta?**

Gero eta gitxiago. Uriburu batzarretara joaten zaranean herrietan, momentu honetan, ez daukadaz datuak, baina andrazkoak gehiago izango dira junta municipalen. Eta batez be 40 urtetik beharako andrak. Oso aktiboak dira.

#### **Lehendakari andrazkorik ikusiko dogu?**

Nik uste baietz. Estadu Batuetan baltz bat ezin zan presidente izan... ez dot uste hemen gatxagoa izango dala andra bat lehendakari izatea.

#### **Ba momentuz ez da izan. Eta Estadu Batuetan be, baltza bai, baina presidente andrazkorik ez dabe izan.**

Egia da.

Bai, gure artean eta beste partiduetako andrazkoakaz berba eginda, bai, kezagarria da. Ze orain ejekutiban dagozan gizonak gure edadekoak dira, Lehendakaria bera be bai, danok hazi gara batera. Suposatzen da gizon honek gitxienezko sensibilidade bat badaukiela, baina partidu politikoetan kosta egiten da betikoak botere pixka bat galtzea eta bidea zabaltzea. Ez litzateke holan izan behar, ze partidu politikoetan bardintasunaren alde lan egiten dogu eta kontzeptua landuta daukaguz.

#### **Orain udagoienean EAJ-PNVk Estatutu eta Bakegintza proposamen barriak aurkeztuko ditu. Zeintzuk dira proposamen honeek dakarrezan barrikuntzak.**

Gauza pare bat egin gura doguz orain. Bat zabaldua dago: Konbentziarako Ponentzia da. Legebiltzarrean sortu zan eta uda hasi zanean apur bat kolokan gelditu zan PSE-EEK oso jarkera gogorra erakutsi ebalako, urtetzeko gogoz eta kontuan izanda PP ez dala sartu eta ez daukala sartzeako gogorik, eta UPyD ez dala sartu, apur bat kolokan gelditu da.

Guretzat oso garrantzitsua da, ze, egia esan, onartu da bakean gagozala eta bake honek ez daukala bueltarik, baina alkarbitzarako normaltasun bat lortu behar dogu eta uste dot hori ponentzia honen bitartez etorri behar dala. PSE-EEK lasaitu egin behar ditu bere hasikerako kritikak eta Bilduk apurtxo bat gehiago zehaztu behar dau zoru etiko hori, gitxienezko itxura bat emon. Ni itxaropentsu nago, uste dot bidea badagoala.

Eta beste proposamena Estatutu Politikoarena da. Hauteskundeak baino lehenago Iñigo Urkullu lehendakari izan baino lehen, Euskadi Buru Batzarreko presidentea zanean, aurkeztu eban hau, alderdi politikoakaz eta gizarte eragileakaz berba eginda. Jasoten dau guk geure buruari ze estatus emon gura deusagun, barrura begira eta zein nahi dogun izatea gure hartu-emona besteakaz. Hauteskundeak heldu ziran eta alderdi guztiak gagoz orain Legebiltzarrean. Momentu egokia da Legebiltzarrean danon artean horretaz eztabaidatzeko. Badakigu jarkerak oso desbardinak dirana, oso-oso desbardinak eta batzuk muturrekoak, baina nozbait hasi beharko dogu horretaz berba egiten. Norberak bere planteamentua dauka, baina alkarbitzarako gitxienezko planteamentu bateratu bat aurkeztu beharko dogu. Eta hau izan daiteke planteamentu bat. Abertzaleok herri independente bat gura dogu baina ikusi behar dogu ze egitura politikoagaz, ze neurritan izan behar diran hartu-emonak Espainia eta Europa eta beste herrialde batzukaz eta ze barne egitura gura dogun. Eta horretarako sortu gura dogu Estatus Politiko deitzean dogun ponentzia barri hau.

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igone Bizkaia

Astaldi eta suspertze soziokulturalerako **IKASTARROAK** Bizkaiko Urtxintxa Eskola > Matrikulazio epea irailaren 2tik 30era

**IKASTARO LUZEAK**

- Astialdiko begiralea
- Astialdiko zuzendari ikastaroa
- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezikidetzan aditua
- Nola sustatu parte-hartzea?
- Heziketa premia bereziak astaldian
- Heziketa premia bereziak eta sexualitatea
- Kulturarteko hezikuntzaren hastapenak

**IKASTARO LABURRAK**

- Zer behar dute adimen gaitasun handiko pertsonek?
- Baloietan hozteko jolasak
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Garapenerako hezikuntza eta kontsumo arduratsua
- Komunikazioaren oinarriak
- Barreterapia

Zabalbide, 26  
48006 BILBO  
T: 94 432 04 45  
[www.urtxintxaeskola.org](http://www.urtxintxaeskola.org)





**Argazki lehiaketea:**  
bialdu zure argazkiak  
begitu@topagunea.com  
helbidera hilaren 25a  
baino lehenago.

Sari ederra  
eroan zeinke!!

## Igorre Kantari INBIU 2013

\*12:00 Igorre kantari  
grabazioaren aurkezpena  
Lasarte aretoan.

\*13:30 Kopautxoa.

\*14:30 Herri bazkaria.

\*16:00 Bazkalostean,  
kantu saioa.

\*18:00 Erromeria, Jokaldi.  
AMEk antolatuta.

\*20:00 Txokolatea  
BEINKE merkatarien  
euskera taldearen eskutik.

Jokaldi Kultur Etxeko Lasarte  
plazan txango da, eurik egin  
edero ezizaleko atsepen.

**Irailaren  
21 ean**







## ZORNOTZA Udal Euskaltegia 2013-2014 IKASTURTEA

**Astean 8 ordu, astelehenetik ostegunera (258 ordu)**

*8 horas semanales, de lunes a jueves*

**(LANGABETUEK/DESEMPLEADOS 10 €)**

**Astean 6 ordu, bi edo 3 egunetan (196 ordu)**

*6 horas semanales, dos/tres días a la semana*

**GURASO TALDEAK / GRUPOS DE PADRES**

**Astean 4 ordu, egunean 1 ordu (121 ordu)**

*4 horas semanales, cuatro días a la semana*

**DENDAKETAN (60 ordu)**

*Cursos para comerciantes*

**Autoikaskuntza (190 ordu)**

*Autoaprendizaje*

**Izen-ematea irailaren 2tik 24ra / Inscripción del 2 al 24 de septiembre**

**Web orriaren bitartez ([www.ametx.net](http://www.ametx.net)) edo euskaltegian bertan**

**En la página web ([www.ametx.net](http://www.ametx.net)) o en el euskaltegi**

**946732026**

**[euskaltegia@ametx.net](mailto:euskaltegia@ametx.net)**

**San Pedro kalea 5**



# Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

\* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€  
edo 75  
Euroren truke



## AMEko JAIA 2013

arratiako merkatarien elkarte

Irailaren 14ean  
IGORREN – KULTUR ETXEKO PLAZAN

**PUZGARRIAK**  
10:30etan



**KALE ANTZERKIA**  
19:00etan



**TXU-TXU TRENA**  
11:00etatik-14:00etara  
16:00etatik-19:00etara

**UMEENTZAKO  
TAILERRAK**  
16:00etatik-19:00etara

**PINTXOAK**  
20:00etan  
Gratis!!!



IGORREN EROSI

# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net  
Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua



**KÄRCHER**  
Banatzaile  
ofiziala



• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
• Garraio zerbitzua.



# emaiozu euskarari

emaiozu  
euskarari

ikasturtea  
**13/14**  
matrikula zabalik

Izena emateko epea irailaren 2tik 26ra

**EUSKALDUNTZA ETA ALFABETATZE IKASTAROAK**

Astelehenetik ostegunera: egunean 2,30 ordu

**Ordutegiak:**

9:30-12:00 14:00-16:30  
16:30-19.00 19:00-21:30

**H.E. (perfilak) prestatzeko ikastaroak**

2 egun astean, egunean 2 ordu

**TRINKOAK**

egunean 4 edo 5 ordukoak

**HABEren 1go, 2. Eta 3. mailak, EGA  
Hizkuntza eskakizunak**

**AUTOIKASKUNTZA**

Multimedia gela eta ikus-entzunezko baliabideak

On-line ikastaroak

**TALDE BEREZIAK: merkatariak...**

3 egun astean, egunean 2,30 ordu

**DESKONTUAK ETA BEKAK**

Irailaren 1go hamabostaldian matrikulatuz gero, %20ko deskontua.

**2013-14 ikasturteko bulego-ordutegia**

Goizez: 10:00-13:30  
Arratsaldez: 16.00-19:00

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**

ikasturteacurso **13/14**



Galdakao<sub>ko</sub> **GALDAKAOko UDAL EUSKALTEGIA**

Muguru 6 • 48960 Galdakao

T.944566174 • F.944571413 • euskaltegia@galdakao.net





**ESKU PELOTEA****Arrese Europako txapelduna**

Imanol Arrese, igorretarrak, Europako eskupelota Txapelketea irabazi eban Iholdin.



Arrese lagunakaz.

**Ainhoa Duñabeitia**

Finala arrastiko 17:00etan jokatu eban Imanol Arresek Luis Cabrerizo soriaztarraren kontra. Partidua set bitan jokatu zan, lehenengoan Arresek galdu eban, 10 eta 8. Bigarrena, barriz, irabazi, 8 eta 10. Markagailuan bardinketea egoan lez, azken seta jokatu behar izan eban. Eta honetan arratiarra fin ibili zan eta 5-3 irabazi eutsan Cabrerizori. Eموitza honer esker Europako txapelduna da Imanol

Arrese.

Martian, Espainiako Txapelketako onena izan zan, eta horrek, Europako txapelketa jokatzeran eroan dau. Abuztuaren 24an, jokatu eban Arresek Europako Txapelketako finalerdia Iholdin (Nafarroa Behera). Binakako finalerdi horretan Frantziako txapeldunordeagaz ibili zan lehian. Partidu hori irabazi eban igorretarrak eta hurrengo egunean finala jokatu. Bertara hurreratu zirani eskerrak emon gura deutsez pelotariak erakutsitako laguntasunagaitik.

**AIZKOREA****Bilbon irabazi ez arren, lehenengo doa ligan Atutxa II.a****Irati Urien**

Floren Nazabalek irabazi egin eutsan Aitzol Atutxari abuztuaren 22an, Bilboko jaietan. Arratiarrak 22' 00" behar izan eban artean, Nafarrak 21' 29"an amaitu eban lana. Hurrengoan Urdulizen ikusi ahal izango dogu dimoztarrak. Zazpigarren jardunaldi hori hilaren 8an izango da, eta Jose Mari Olasagasti eukiko dau aurkari. Momentuz, aurtengo Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligan Atutxa II.a doa lehenengo, bost puntugaz; eta atzetik, Floren Nazabal dauka lau puntugaz.

Bizkaiko Txapelketeari jagokonez, hil honen 13an izango da kanporaketea Larrabetzun. Zortzi aizkolari ibiliko dira norgehiagokan. Horreetatik hiru arratiarrak: Xabier Garcia "Utzu" gatzizenagaz ezaguna dana, Julen Mendieta eta Aitzol Atutxa bera. Lehenengo seirak finalera joango dira. Igaz, aitatutako hiru arratiarrak lortu eban pase hori.

**HERRI KIROLAK****Tubik berretsi ditu Euskal Herriko Lasto Altxatze eta Lasto Botatze txapelak****Erredakzioa**

Txapelketa bietan nagusitu zan Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak.

Abuztuaren 24an, Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea jokatu zan Bilbon, jai egitarauaren barruan, eta aurreko urteetan moduan, txapela lortu eban Tubik. Dimoztarrak 12 kiloko fardoa 6,20m.tan jarritako listoi gaintetik pasuarazo eban. Lapazaranek eta Arbenoizek, barriz, sei metrotako marka egin eban, bigarren eta hirugarren egin.

**Lasto altxatzen be txapeldun**

Euskal Herriko Lasto Altxatze txapela be lortu eban Tubik abuztuaren 15ean Bailiarrainen, (Gipuzkoa) minutu bitan 22 jasoaldi egin. Norgehiagokea gogorra izan zan, izan be, bigarren eta hirugarrena txapeldunaren markatik jasoaldi batera geratu zirani. "Ez nintzan ondo hasi, hutsegite bi izan nituan" azaldu eutsan dimoztarrak BEGITURI.

Baina hasikera txarra gaintuta, Euskal Herriko txapela lortu dau aurtengoan be.



Jose Martin Bustinza "Tubi".

**Los Chopos**  
neurritza egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 33 (Nafarroa) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org • 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 - Industrialdea E-3 Pabellona (Igorre)

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balonak: AT, A, BTT, B  
Lehendakari Agirre 31  
Ifnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskaltel.net

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karnela eskolaraz zein erdoraraz  
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urdaul@euskaltel.net

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendizola, 3 - 48530 LEZIOA, Bizkaia  
Tel: 090 482 8300 fax: 090 200 717

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabin Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejratza@hotmail.com

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsl@indarsl.es • www.indarsl.es

UMER moda  
**sein**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

**AKETEGIA**  
**GAV 55 LORA**  
IGORRE

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDARIN HUGAZTINEN  
ASIGURUTAN  
Sabin Arana, 3. floor. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 71 41 - 48140 IGORRE

**axular**  
kultur-erakundeak  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES  
Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

**begitu**  
amalia urda ezberdiz



## TXIRRINDULARITZEA

# Lemoa, Ubide eta Igorren bizikleta martxak



15ean, VIII. Iban Mayo Martxa Zikloturista Igorren.

Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatutako Julen Zubero I. mendi Bizikleta martxako zirkuituak 28 km eta 850 m.ko desnibela izango ditu. Partaideak goizeko 10:00etan abiatuko dira Elizondo auzotik. Horretarako izena emon behar da egunean bertan, goizeko 08:00etatik aurrera. Txirrindulariak 18. km.an horniketea izango dabe indarrak barriztuteko eta amaitutakoan kopautxoia egongo da.

### Ubideko V. Mendi Bizikleta Martxa

Ubideko V. Mendi Bizikleta Martxa, hilaren 14an abiatuko da goizeko 09:30ean Amexier Mendi taldeak eta Ubideko Udalak antolatuta. Txirrindulariak 41 km. egin behar izango ditue 1.104 m.ko desnibelagaz. Izen emotea hilaren 12ra arte egin daiteke Amexier Mendi Elkartearen webgunean, edota martxarean egunean bertan

### Erredakzioa

Mendi bizikleta zaleak zein kaminioan ibiltea gustuko dabena hainbat aukera ditue hile honen lehenengo hamabostaldian bizikleta gainera igoteko. Izan be, hilaren 7an Lemoan Julen Zubero Lemoako I. Mendi Bizikleta Martxa izango da; 14an, Ubiden V. Mendi Bizikleta Martxa eta

08:00etatik 09:30era arte.

Aurtengo edizinoa Eduardo Fernandez de Castilloren omenez izango da. Ubideko BTT martxa honen sustatzailea eta Amexier mendi alkarteko bazkidea izan zan Fernandez de Castillo urte hasieran hil zana, eta taldekoak aurtengo edizinoa bere omenez egitea gura izan dabe.

Ubideetik urtenda, parte hartzaileak Upeteko landetatik, Saldropo, Salutrieta, Otzarreta, Upete eta Zubizolatik pasauko dira Ubiden horniketea izan arte. Gero, Siskiño, Alaran, Harrobiak, Letxaranda eta Atxurdinetik pasauko dira, Ubideko helmugara heldu aurretik.

### VIII. Iban Mayo Martxa Zikloturista

Aurreko biak mendi martxak dira, baina Iban Mayo lagunartekoak antolatu dauan martxa zikloturista kaminotik joango da. Partaideak 111 km. egin behar izango dabez goizeko 09:00etan urtenda Igorretik, eta Urkiola moduko mendateak igon beharko dabez. Ibilbidea honako hau da: Igorre, Zornotza, Larrabetzu, Morga, Muxika, Gernika, Munitibar, Urrutxua, Durango, Urkiola, Otxandio, Zeanuri eta Igorre.

### Erredakzioa

Areatzako II. Mendi Martxa hilaren 14an izango da. Parte hartzaileak herriko plazatik abiatuko dira goizeko 08:00etan eta ibilbide bi daukiez aukeran: laburrak 20 km. izango ditu eta luzeak 27,5 kilometro.

Parte hartzeako izena interneten bidez emon daiteke, Areatzako Kultur Kirol Batzordearen webgunean hilaren 12ra arte 7 euro ordainduta, edo egunean bertan goizeko 07:15etik aurrera plazan (9euro).

### Hainbat mendi tontor

Martxa Areatzako plazan hasi eta amaituko da, eta horniketa gune bi egongo dira martxa luzea zein laburra egiten dabenez. Martxa laburrekoak Kerezikoatxa, Hirumugarrieta, Asteitze eta Upotik pasauko dira. Martxa luzea aukeratzan dabena Pagomakurrera be igongo dira.

Amaitukeran, parrilladea eta masajeak izango ditue parte hartzaileak indarrak berreskuratzeko.

Parte hartzaileen artean Hesperia Areatzan gau bat zozketatuko da eta Atxarte Mendiko Dendaren materiala be bai.

Areatzako Kultur Kirol Batzordea, Areatzako Gaztetxea, Lamino Mendi Taldea, Areatzako Udala eta Peña Athletic Gorbeako Gurutzea dira martxa honen antolatzailak.

## SEGA

# 35 kilogaitik galdu eban apustua Irati Astondoak

Emozinoz betetako ikuskizuna eskeini eben segalari biak Anoetan.



Joakin Garmendia eta Irati Astondoa opariakaz.

### Jon Urutxurtu

35 kiloko aldea atera eutsan Joakin Garmendia anoetarrak Irati Astondoa zeanuriztarrari abuztuaren 24ean, Anoetan (Gipuzkoa) jokatu eben sega apustuan, eta berarentzat izan ziran jokoan egozan 600 euroak. Ordu erdia eta gero, Garmendiak 380,5 kilo bedar ebagi ebazan, eta Astondoak, barriz, 345,5 kilo.

46 urte ziran atzenengo aldiz andrazko batek gizonezko baten aurka sega apustu bat jokatu ebala; gainera, ordura arte egindako danetan, gizonezkoak abantaila emoten eutsan andrazkoari. Oraingoan ez egoan holangorik; alde bakarra adinean egoan: Joakin Garmendiak 68 urte, eta Irati Astondoak, 22 besterik ez. Guzti horrek itzelezko ikusmina eragin eban eta ondorioz, 800 ikusle inguru hurreratu ziran Anoetako ikastolako zelaira, sega jokoan ikusten.

Bedarra, siku egoan, eta hori amaierako pisuan argi eta garbi azaldu zan. Apustuko gakoetako bat hasieran egon zan. Irati oso urduri hasi zan eta lehenengo arloan ilara bateko tartea atera eutsan Garmendiak. Probak iraun eban ordu erdian zehar Anoetako segalari beteranoak erritmoari

ondo eutsi eutsan, nahiz eta atzeneko nahiko beteta amaitu.

Astondoak Bixente Mitxelena eroan eban laguntzaile eta zorrotaile moduan, eta urduri eta astiro hasi bazan be, behetik gorako proba egin eban, denporak aurrera egin ahala, hasieran Garmendiak atera eutsan aldea jaten joan zan zeanuriztarrak.

Garmendiak bere eskarmentua azaldu eban segan, eta Astondoak baino zehatzago ebagi eban bedarra. Hor egon zan bere garai-penaren beste gakoetako bat.

Emoitzearen gainetik, ikusleen erantzuna azpimarratu behar da, 800 persona inguru bildu ziran eta. Amaieran, bertaratu ziranak sano gustura atera ziran, segalari biak emondako ikuskizuna emozinoz betetako eta goi mailakoa izan zalako. Horrez gainera, kirolari bien artean tarte txikia egon zan.

Galdu arren, Irati Astondoa gustura egoan. "Egindakoagaz gustura nago. Neukan guztia emon dot, etxeko lana egin dot, eta ez dago gehiago eskatzerik. Bakar-bakarrik Joakin Garmendia zoriendu".

Apustuaren amaieran, kodainalari biak opariak alkartrukatu ebazan: Iratik gaztaia oparitu eutsan Joakineri eta honek lora sorta bat Iratiri.

## MENDIA

# Pagomakurre aukeran Areatzako II. Mendi Martxan

**12ZILZK. 14 SEPTIEMBRE. 08:00Z. 08:00Z. 08:00Z.**

## AREATZAKO MENDI MARTXA

**IBILBIDE LUZERRA: 27,5 KM. (+1400M)**

**IBILBIDE LABURRA: 20 KM. (+350M)**

**ITZARTEZKO**

- Izen emotea: irailak 12a baino lehen, 7€ sartuz
- Inscripción: Antes de 12 de septiembre, inscribiendo 7€
- BBK 2095 0075 00 91 11307220
- Egun berean: urteerari, 07:15etik aurrera, 9€
- El mismo día, a partir de las 07:15, 9€
- Amaieran, "Parrillada" eta oparia.
- Al finalizar "Parrillada" y regalo
- HESPERIA AREATZAN gau bat eta ATXARTE MENDIKO DENDAren materiala zozketatuko da.
- Sorteo de una noche en el HESPERIA AREATZA y material de ATXARTE MENDIKO DENDA.

[www.areatzakomartxa.blogspot.com](http://www.areatzakomartxa.blogspot.com)

**DONAZLEZ:**

- ATXARTE
- Coca-Cola
- Arriakote Gurutze Gernia
- Hesperia Areatza



## ERAKUSKETEAK

Areatzako bainuetxean  
Igorreko Biziarteako  
partaideen erakusketak

## Erredakzinoa

Abuztuan Rosa Calzada pintorearen erakusketea izan da Areatzako bainuetxeko erakusketa lekuan eta urri lehenengoan bere ahizta Marisol Calzadaren txandea da. Izan be, Igorreko Biziarte Elkarte Artistikoko partaideak bakarkako erakusketak egingo dabez Areatzan. Taldeak ibilbide desbardinetako artistak batzean ditu eta talde erakusketa bat egin eben Igorren, bagilan. Oraingo hau, bakarkako lehenengo erakusketea izango da taldeko batzuentzat.

Ez da Rosa Calzadaren kasua. Izan be, Rosa Calzadaren lanbidea pintorea da. "Getxoko Antzezaleak

Taldeko fundatzaileetakoa naz. Orain dala 30 urte sortu genduan talde ha eta bertan eskolak emoten egon naz 30 urte inguru. Erakusketa asko egin dodaz, Gasteizen, Zaragozan, Logroñon, Bilbon eta Bilbo inguruko herrietan, batez be".

Orain pare bat urte Igorreko alkartea sortu eban andra artista talde batek eta alkarreko partaidea be bada Rosa Calzada. Taldearen helburuetako bat, partaideentzako erakusketak lortzea da.

## Areatzako bainuetxean

Areatzako Hesperia Hotelean pinturak, argazkiak eta beste artelan



Areatzako bainuetxeko erakusketea.

batzuk erakusten ditue. Egileak herriko jentea edo bertan ostatu hartzean dabenak izaten dira gehienetan, bertan Areatzako Jon Artetxek lehenengo erakusketea egin ebanetik. Horregaitik, Igorreko Biziarteakoak kontaktuan ipini zira-nean erakusketak egiteko, bainue-

txekoak artea ipinteko aukera hori izategaitik "pozarren" emon ebela baiezkoa dinoe. Artista bakotxak hilabete batez eukiko dauz lanak erakusgai.

"Euskal Herrian arte mundua ez dago txarto, baina hobeto egon leiteke. Aukera hau aprobetxau

gura dot erakundeai, museoai, arte-galeriari, erakusketa aretoai eta abareri andrazkoen parte hartze handiagoa eskatzeko arte kontuetan. Momentu honetan oso eskasa da parte hartze hori, eta hori ez da bidezkoa" dino Rosa Calzadak.

## Kultur Etxeko ikastaro batetik sortua

Alkarrearen hazia Igorreko Kultur Etxeak antolatu eta Ines Medinakin emondako Prozesu Sortzaile Plastikoen inguruko mintegian egon zan. Mintegian parte hartu ebenak, ikastarotik haragoko helburuak zituen eta artelanaz gainera, arte plastikoan bide barriak jorrazteko sortu dabe alkartea. "Zortzi andra artista gara alkarregaz hartu-emonak eukiten segiduteko, alkarregaz behar egiteko eta teknikak alkarbanatzeko preminatik sortu zan Igorreko Biziarte alkartea" dino Rosa Calzadak. Taldea, dana dala, jente barriari zabalik dago eta ikastaroen egin ez eben artistak be sartu dira bertan.

## JAIK

## Jaiak auzoetan oraindino

## Erredakzinoa

Urri lehenengo San Antolin jaiak hasi da. Jai honeek Dimako Oban eta Lemoako Lemoatxen ospatuten dira. Oban Sainduni izena hartzean dabe eta abuztuaren 30ean hasi ziran. Kronoeskaladea eta krossa Dimatik Obara eta iPodteoa, antzerkia, auzo bazkaria eta Bola Txapelketea izan ziran astegoieneko ekitaldi batzuk.

Lemoatxen mezea bertako ermitan egongo da eta erromeria inguruetan San Antolin egunean.

Lemoatx eta Obaz gainera, San Antolin edo San Induni Zeberioiko herriko jaiak dira, eta Igorren be, ermita bat dago santu honen izenpean Garai eta Garamendi artean.

Hilaren 8an, barriz, Andra Mari Eguna da. Lemoako Elizondon ospatuten dira jai honek.

Andra Mari jaiak  
Elizondo (Lemoa)

## Urri lehenengoak 7, zapatua

**10:00**etan, Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Julen Zubero I. Mendi Bizikleta Martxea, Elizondoko parkinetik hasita.

**13:00**etan, poteo musikatua, Arratiako Musika Eskolearen eskutik. Arraibiko Mailuki tabernetatik hasita.

**15:00**etan, bertso bazkaria. Bertsolariak: Julio Soto eta Xabier Silveira.

Bertso saioaren ostean, haurrentzako jolas eta tailerrak Zastaparrak taldeak antolatuta, Elizondon.

**18:30**ean, poteoa DJ Elepuntogaz batera, Elizondoko goiko tabernetatik hasita.

## Urri lehenengoak 8, domekea

**12:30**ean, meza nagusia Andra Mari eleizan.

**22:00**etan, Zeaniko Antzerki Taldearen *Zer ete darabil Tomasak!* antzezlanaren Elizondon.

## IKASTAROAK

Ikasturte barria,  
aukera barriak

## Erredakzinoa

Ikasturte bakotxaren hasieran, zerbaist ikasi eta bizi kalidatea hobetuteko aukerea izaten da ikasturte barriari begira hasten diran ikastaroen bitartez. Eskeintza handia da gurean. Osasuna jago-teko hain garrantzi handikoak diran edakoentzako gimnasia edo pilates moduko ikastaroak ia herri guztietan eskeintzen dabez, eta ezagutza praktikoak hobetuteko, euskera ikastaroak, informatikea, sukaldaritza eta literaturearen inguruko ikastaroak, berbarako, arrakasta handia izaten dabe. Zer esanik ez, arteagaz lotutakoak: Arte aplikauak edo eskulanak;

jantzak; literatura tailerrak...

Eskeinitako ikastaroak aurrera aterateko gixienezko ikasle kopurua behar da. Areatza, Bedia eta Lemoan, honeexek dira egin daitekezan ikastaroak. Beste herrietan eskeintza guztiz zehaztu barik egoan zenbaki hau zarratuterakoan.

Areatza, soinketea eta euske-  
rea

Areatzan, Arte aplikauak (eskulanak), Yoga; 3. edadekoentzako gimnasia, Aerobic, Pilates, Euskal jantzak eta Euskera ikastaroa.

## Bedian umeak be bai

Orokorrean ikastaro honek nagusai zuzenduta badagoz be,

Bedian umeentzako eskeintza be egiten dabe eta holan, Euskeraz OI-getan edo Pala eskolak dagoz. Horretaz gainera eta batez be nagusai zuzenduta, Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Aerobic, Korru jantzak, Rollers patinajea, Jantokiko begiralea/teknikoa, Informatika eta Euskera ikastaroak eskeintzen dabez.

Lemoan lanari begirako  
hainbat

Lemoan honako ikastaroak egin daitekez: Psikomotrizidade gelatik jolas arautura, Ordenagailuen konponketa eta konfigurazinoa, Etxeko lanak: oinarriko konponketak eta mantenimintuak, Osasuna eta plazerra zure tupperrean eta expres postreak, Eskulan ikastaroa, Informatika ikastaroa, Autodefensa, Zoru pelbikoa indartzea (oinarrikoa), Zoru pelbikoa indartzea (aurre-ratua), Euskera ikasi eta erabili/euskera eskolak eta Berbalagun.



**Bertso bazkaria  
LEMOA**

Gaztetxe azpiko zelaia.  
Irailak 7, larunbata / 15:00etan



## IBILALDIA

# Zeanurin, oinez, ermitarik ermita

Urri lehenengoaren 7an, zapatuan, izango da Ermiten XXVI. Mendi Martxea.

### Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 7an, zapatuan, izango da Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea. Aurtengoagaz hogeta seigarren urtea beteko dau 1988an jaio zan eta klasiko bihurtu dan oinezko marxa honek. Orduan antolatu eban lehenengo aldiz Joko Alai Elkarte-ko mendi sailak eta, urtero, hutsik egin barik eutsi deusie zeanuriztarrak urteroko ziteari. Igaz arte ibilaldia domekan izaten bazan be, igaz zapatura pasetea ebatzi eben antolatzaileak eta holan egingo da aurtan be.

Helburuak hasikerako berberak dira: zapatu goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginez igarotea, eta herritarri zein kanpotarri Zeanuriko inguru zabalak eta ermiten ondarea ezagutzera emotea. Ez dira gitxi, izan be, herri honetan sakabanaturik dagozan ermita edota eleizak, guztira hogeit.

Urtekerea Ibarretako frontoian izango da, goizeko 07:30ean; aurtan ibilbideak igazkoaren kontrako norabidea jarraituko dau,

hau da, urtekeratik Eleizondo parrokiara zuzendu beharrean, plazako San Antonio eta San Isidro ermiten aurretik igaro ostean, Uriberantza zuzenduko dira. Amaierarako geratuko dira igaz hasieran egozan Andra Mari parrokia eta Piedadea ermitea. Ibilbide osoa egiten dabenak 35 bat kilometro beteko dabez eta hemeretzi ermita edota eleizaren ondotik igaroko dira, aurtan be Egiriñaoko (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpo geratuko da eta. Beste ibilbide bi be badagoz aukeran: bata, ibilbide ertaina, 23 kilometrokoa eta bestea, laburra, 13 kilometrokoa.

Amaitzerakoan, ibilbide luzea zein ertaina zein laburra bete eta gero, ziur ziteari erantzuteak merezi izango deusielu ibiltariak, Zeanuriko ondare erlijiosoa ezagutzeaz gain, uda udagoien bihurtzeaz dagoan sasoi honetan natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobea eskeiniko deusielako Zeanuriko Ermiten XXVI. Mendiko Martxeak.

**Izena emotea:** Urri lehenengoaren 4a aurretik: 7€ sartuz BBK-ko kontu-zenbaki honetan: 2095 0335 29 3830586275. Egun berean: 06:45etik aurrera, herriko plazan: 10 €. Joko-Alaiko bazkideak: 3€. 14 urtetik behe-rakoak: 3€.

**Ibilbideak:** Luzea: 35 kilometro. Ertaina: 23 kilometro. Laburra: 13 kilometro.

**Urtekerea:** 07:30ean, Ibarreta frontoian.

Osasun-zaintzea, jan-edana eta kontrol puntuak egongo dira ibilbidean zehar. Pelotalekuko dutxak zabalik egongo dira.

**Laguntzaileak:** Zeanuriko Udala, Lori-Leire dendea, Txoko Sagarna dendea-tabernea, Jubiladuen tabernea, Zeanuriko Batzokia, Norbega-Coca-Cola, Arratiako Gurutze Gorria.

**Informazioa:** Gorka 634 430 543, Edorta 645 739 982 eta www.mendimartxak.creatufo.com.



Altzustako San Migel ermitatik pasauko dira ibiltariak.

## ANTZERKIA

# Zer ete darabil Tomasak! estreinau dau Zeani Antzerki Taldeak



Zeani Antzerki Taldeko kideak.

### Jon Urutxurtu

Azken hogeta zortzi urteotan legez, aurtan be, Zeani Antzerki Taldeak urteroko ziteari ez deus hutsik egin eta andramarietan, herriko jaietan, *Zer ete darabil Tomasak!* antzezlan barria estreinau eban. Gainezka egoan plazan, eta ikusleagoaren barreen eta txaloen artean, arrakastaz, taularatu eben obra barria. Hurrengo antzezpena Lemoan egingo dabe, urri lehenengoaren 8an eta ostean batez be Gabon inguruan, beste herri batzuetan aurkeztuko dabe.

Aurtengoa orain arte plazaratutakoen estilo bereko antzezlan da: Arratia aldean "komediak" izenagaz ezagutzen dan horreetakoa. Bikoteen hartu-emonak, hartu-emon sexualak eta zirugia estetikoan inguruan korapilatzen da argumentua. Azpimarratzekoa da Itziar Artetxeren —Elpidea, erizainaren paperean— eta, batez be, Bibiñe Pujanaren eta Anita Astondoaren —lehenengoa, senarrak jaramonik egiten ez deusan Tomasaren paperean eta bigarrena, Remediosenean, Tomasari aholkuak emoten deusazan "jakituna"— lana. Obrearen pisua eurak biak daroe eta; ez dira atzean geratzen Mikel Altuna —zirugia estetikoan

espezialistea dan medikua— eta Sebastian Gortazar —Tomasaren senarra—. Gainera, obreak uste-bako amaiera dauka, ikusleak itzaroten ez dauana.

Patxi Bilbao bermeotarrak zuzendu dau taldea eta berak idatzi dau *Zer ete darabil Tomasak!*-en gidioa. 2000. urtera arte antzezlanak zeanuriztarrak eurak idazten baebezan be, urte horretan, Patxi Bilbao gidolari bermeotarraren-gana jo eben, eta orduetik bera da eurengan pentsautako gidioak idazten dauzana. "2000. urtera artekoak geuk idatzitako lanak, gehienbat inprobisazioan oinarrituak ziran, orduetik aurrerantzakoak antzerki munduko profesionala dan Patxi Bilbaok idatzitakoak dira. Gainera, bera da zuzentzen gaituana, eta paperak lehenago baino prestatuago eukitera behartzen gaitu, inprobisaziolari zirrikitu bat be itxi barik", dinoe Zeanuriko aktore-akotoresak.

Kontuak kontu, udako denporaldia amaitu bada be, aurrerantzean, Gabon inguruan batez be, *Zer ete darabil Tomasak!* taularatu zira-biran jarraituko dau Zeani Antzerki Taldeak. Eta jadanik, datorren urtera begira gidoi barri bateri bueltak emoten hasia da Patxi Bilbao.

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorze  
Tel. 94 631 15 26

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 beko - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**www.begitu.org**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**begitu**  
arratia ubide zeberio



## AGENDEA

### URRI LEHENENGOA BEDIA

17:00etan, ludoteka zerbitzuaren hasikerea, hilaren 2tik. 2013-2014 ikasturtea.

17:00etatik 20:00etara, hilaren 13ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan izen emotea liburutegian.

### URRI LEHENENGOAK 6 ARTEA

Arteko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

#### DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herrirak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan.

### URRI LEHENENGOAK 7 AREATZA

09:00etan Peña Gorbeako Gurutzea Athletic-ek antolatuta Gorbeia urtekerea. Frontoian.

#### IGORRE

17:00etan, Arratia Motor Taldearen XII. Motor konzentrazioa. Donibane Tabernan.

#### LEMOA

10:00etan, Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatuta, Julen Zubero I. Mendi Bizikleta Martxea, Elizondoko parkinetik hasita. 13:00etan, poteo musikatua, Arratiako Musika Eskolearen eskutik. Arraibiko Mailuki tabernatik hasita. 15:00etan, bertso bazkaria. Bertsolariak: Julio Soto eta Xabier Silveira. Bertso saioaren ostean, haurrentzako jolas eta tailerrak Zaztaparrak taldeak antolatuta, Elizondon. 18:30ean, poteoa DJ Elepuntogaz batera, Elizondoko goiko tabernatik hasita.

#### ZEANURI

07:30ean, Ermiten XXVI. Mendi Martxea. Urtekerea Ibarreta frontoian.

### URRI LEHENENGOAK 8 LEMOA

Andra Mari Eguna. 12:30ean, meza

nagusia Andra Mari eleizan. 22:00etan, Zeaniko Antzerki Taldeak *Zer ete darabil Tomasak!* Antzezlanaren aurkeztuko dau Elizondon.

### URRI LEHENENGOAK 10 LEMOA

Lemoako Udalak antolatuta, Informatika eta Mekanografia ikastaroaren hasikerea. Liburutegiko informatika gelan.

### URRI LEHENENGOAK 14 AREATZA

08:00etan, Areatzako II. Mendi Martxea.

Ibilbide kultural mitologikoa Pabi Astondoaren eskutik, Parkeak antolatuta.

#### IGORRE

AME, Arratiako Merkatarien jaiak. 10:30ean, puzgarriak. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Txu-txu trenak. 16:00etatik 19:00etara umeentzako tailerrak. 19:00etan, kale antzerkia. 20:00etan, pintxoak.

#### LEMOA

Slalom automobilistikoa.

#### UBIDE

09:30ean, V. Mendi Bizikleta Martxea.

### URRI LEHENENGOAK 15 IGORRE

09:00etan, Iban Mayo VIII. Martxa Zikloturistea.

#### LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Besaide (564 m).



# hiru

## Hiru antzezlanaren Arteako jaietan

Hiru andrazkok ez dabe alkarren barri izan joan daneko hiru hamarkadetan, ikasketak amaitu zituenetik, hain zuzen be. Lagun minak ziran orduan, baina bizitzaren joan-etorrian, bakotzak bere bide eta esperientziari ekin eutsen. Berrogeta hamarrek beteteko dagozanean, gauza bat daukie argi eta garbi: zein baino zein bakartiago bizi dirala, hirurak be, ama izateko ametsa bete barik. Berandu ete? Eta gustuko gizona topauko balebe? Eta gizon horrek hirurak haurdun itxiko balitu? Benetako familia bat osatu lekie. Eta orduan, Joxe Ramon amestutako gizonagaz egiten dabe topo...

Horixe da *Hiru* antzezlanaren abiapuntua, Artean, hilaren 8an, domekaz, arrastiko 19:30ean egongo da ikusgai komedia hau. Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga dira aktore protagonistak.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

#### BASERRIA SALGAI

Zeberion baserri-bainuetxe barriztatuta salgai. 320.000 euro. Gorbeia Parkearen barruan kokatuta. Biziteko moduan. Telefonoak: 94 648 15 90 eta 609 568 453.

#### TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

#### MODULO SALGAI

Modulo saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpinean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

### DANERIK

#### ALTZAIURAK BEHAR DOGUZ

Dimako gaztetxoan lokalean altzairuak behar doguz: sofak, mahaik, apalategiak... Baten batek botateko edo sobran badaukaz

deitu telefono honeetara: 680 207 565 edo 634 401 026.

#### DESBROZADOREA BEHAR DOGU

Baten batek erabili barik badauka ipini kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekatuarte@gmail.com.

#### AREATZAN ETXEA ALOKAIURAN

180 m<sup>2</sup> dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

#### BIZIKLETEA EROSI GURA DOT

Bizikleta estatiko plegablea erosi gura dot. 615 783 915.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

# 1

**2102ko Gorbeia Suzien mendi-lasterketako kamiseteta.**

Arantza Aldekoa (Artea)  
Nagore Lekue (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.



**DENPORA-PASA**

IMAN OLATU




**EZKERRETIK ESKOIERA**


1.- Galdera aurretik. Ezti. 2.- Adi egon. 3.- Giroa egokitu. 4.- Haga, habe. Birritan, berbeta hotsaren onomatopeia. 5.- Zirkuan egiten dau behar. 6.- Letra bat. Oso. Konsonante bat. 7.- Emea ez dana. Mila erromatar. Mamuaren onomatopeia. 8.- Letra bat. Mitologian, Lurraren personifikazioa. Nitrogenoa. 9.- Gaukera.

**GOITIK BEHERA**

1.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Logile. 2.- Gatzagi. Konsonante bat. Berrogeta hamar erromatar. 3.- Potolo. Zu eta ni. 4.- Birritan, dardarearen onomatopeia. Adore. 5.- Bardin. Kanpo. 6.- Trapu. Mila erromatar. Azken letrea. 7.- Oxigenoa. Uribarren.



Topau Asegarce enpresako zazpi pelotari.



**AKI MI KO**

Zorrozki lo



**HERRIKO BENTAK**  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA,  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**bbk**

**BICIS BIZI**  
Arratiarren Aldea  
Tel. 94 631 54 22  
www.bicisbizi.com

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetuzkoa, herrikoa

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarano HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilengoak, Hezkuntza zikloak

**expert ARRATIA**  
E-posta: expertarratia@cordevi.com  
Leh. Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE Fax 94 631 52 89

**Kendall Languages**  
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz  
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea  
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com



## JUANTXU URKIAGA

**"Arratian gagozenez, Arratia futbol taldearen himnoa jotzen dogu beti"**

Ez dago jairik erromeria barik gurean. Horregaitik jai sasoi amaitzear dagoan honetan Jokaldi erromeria talde arratiarra ekarri gura izan dogu sail honetara. Jokaldik 30 urtetik gora daroa jentea jantzan ipinten Arratia eta Arratiatik kanpoko herriko jaietan eta hiru disko eta maketa bat argitaratu dauz taldeak. Hasikeratik bertan egon dan Juanxu Urkiaga igorretarragaz egon da BEGITU.

**Erredakzioa**

**Momentu honetan, Juanxu Urkiagak (teklaia, gitarrea eta abotsa) eta Joseba Urkiagak (bateria eta abotsa) osotuten dozue Jokaldi, baina jente asko pasau da bertatik 30 urte honetan.**

Taldea orain 30 urte gitxi gorabehera sortu zan. Hasikera baten hiru izan ginan: Jabi Gartzia, Jose Luis Olabari eta ni, Juanxu Urkiaga. 12 urte inguru ibili ginan holan eta gero taldea handitu egin genduan. Jabi Gartziak itxi egin eban taldea eta beste hiru sartu ziran: Asier Muniategi (bajua), Carlos Velasco (gitarra) eta Elias Barragan (bateria). Lau urte pasa eta gero Carlos Velascok itxi eta Andoni Ponce sartu zan. Hau urte bi egon zan gugaz eta azkenik Luis Mateo izan zan gure gitarrista eta flautista. Formazino honegaz 8 urte ibili ginan Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaitik plazarik plaza. Gero, Elias Barraganek eta biok jarraitu genduan zenbait jaitan bikote moduan. Beste 8 urte ibili ginan batera. Orain nire semea Joseba Urkiaga eta biok jarraitzen dogu atzenengo urte biotan. **Arratiatik kanpo be ezaguna da Jokaldi, ezta?**

Bai, batez be Berango partean, Lekeition, Ondarrun, Abadiñon... Euskal giroa dagoan lekuetan. Euskal giroa ez dagoan lekuetan, Etxebarrin, herri bat esatearren, ez da ezaguna. Ondarrun, barriz, badira urte batzuk egoten garana eta izugarriko giroa egoten da. Arrantzale egunean batez be. Aurten be egon gara, abuztuaren 17an izan zan eta sano giro ona egon zan.

**Zuen taldekide izandako batzuk, erromeria jotetik beste**

**musika mota bat egitera pasau dira?**

Beste estiloetara? Bai, badago musika gregorianoa egiten dauana be, edota jazz-zale amorratua dana. Taldekide bakotzak bere estiloa dauka. Jokaldin bertan, batzuei saltsa gustetan jakie, beste batzuei rock-a... baina nahiko marxosoak gara danok. Gure taldean beti jente marxosoa ibili da. **Zein da Jokaldiren berezitasuna? Zer dauka Jokaldik beste talde batzuek ez daukiena?**

Gitxi gorabehera, erromeriatan gabizen taldeok, antzekoak gara. Jokaldin euskal kutsua mantentzen ahalegintzen gara. Beste talde batzuei gitxiago interesetan jakie hori. Guk lehentasuna emoten deusagu euskeari beti.

**Ze publiko mota daukazue?**

Leku euskaldunetan, danerik egoten da, 30 urtetik gorakoak, dana dala. Baina giroa euskalduna ez danean, batez be jente nagusia.

**Urteak pasau ahala eta jentea aldatu ahala, suposatzen dot errepertorioa aldatzen joango ziniela, ezta?**

Batez be, kalean entzuten dana josten dogu. Azken finean erromeria jantzan egiteko izaten da eta jenteak kantea ezagutzen dauanean egiten dau jantzan. Irratiak eta telebistak egunero-egunero kanta bategaz badagoz, jenteak kanta hori jantzan egingo dau halan edo holan.

Orduan, zeintzuk diran gure erispideak? Kanta barriak ikasi, kalean entzuten dana, baina geurea mantenduta, euskal kutsu hori mantenduta.

**"Lau teilatu" be joko dozue, ezta? mundu guztiari gustetan jakon "klasikoa" da eta.**

Bai, "Lau teilatu" edo "Xalbadorren heriotza". "Xalbadorren heriotza"

"Lau teilatu" beste jotzen da. Baina guk gehien jo dogun kantea Athleticen himnoa izan da. Eta hemen Arratian, Arratia futbol taldearen himnoa. Edorta Zurinaga eta biok ibili ginan himnoa egiten taldearentzat eta Arratiaren himnoa jotzen dogu beti.

**Zelan buztartzen dozue eguneroko bizimodua eta erromeria? Gatxa da jaikitea hurrengo egunean beharrera joateko, bezperan erromeria bat jo ezker?**

Guk gaez gero eta gitxiago jotzen dogu, arrastiz ibiltzen gara. Alde batetik, ez daukagulako gauerako errepertorioik, baina gogorik be ez. Urte askotan ibili gara gaez eta badakigu zer dan. Hori gazteentzat ixten dogu. Semeari bardin deus, egunez zein gaez. Sano marxosoa da.

**Zelan konpontzen zarie aita-semeak?**

Niri semeagaz joteak asko erretzen deustaz gauzak. Etxean pilo bat gauza egiten doguz. Lehen montau behar zanean ekipoa, geratu behar zan, orduak topau... eta ez da erreza izaten.

**"Arratian mobimentu handia dago. Leku dinamikoa da"**

**"Globalizazioa dala eta internet dala, euskal musika gitxi entzuten dabe gazteak"**



ten. Zenbat eta zaharrago, orduakaz txarrago.

**Arratian musika talde asko dagoz. Ze balorazino egiten dozue.**

Gazte talde asko dago eta oso ondo dabilz honek gazteak. Niri poz handia emoten deuste. Edozein musika mota jotzen dabe. Arratian ikusten da jentea bizirik dagoala, gazteak bizirik dagozala: indartsu eta gogotsu dabilz. Eta ez musikan bakarrik. Igorren, esate baterako, jenteak edozein ekintzari, edozein historiari ekiten deus. Mobida handia dago. Ni oso pozik eta gustura egoten naz jente gaztea ikusita. Igaz egin genduan lip dub bat eta han egon ziran pilo bat gazte. Ikusten da izugarriko mobimentua dagoala, leku dinamikoa da hau.

**Zein da jo dozuen lekuri exotikoa? Pasadizoren bat?**

Aramaion berezia izan zan, burdi baten gainean jo genduan eta berezia izan zan, ze lekua bera be berezia zan.

Berbenetan eta, pilo bat gauza pasetan dira. Orain dala 15 bat urte edo, Nafarroan egon ginan jotzen, ez noa herria esaten. Eszenariotik tekniko egoten dan lekura kable bat egoten da, soinu kontrolatuko. Eta hangoak pentsau eben ha kablea soka bat zala, eta hasi ziran sokatira egiten. Iskanbila handia euki gen-

duan.

**Bikote asko sortuko ziran zuon erromerietan, ezta?**

Bai. Baina horretaz orain enteretan gara. Ni egon naz batzuek esaten dabenak: zuek jo zenduenean enroilau ginan gu. Baina gero enteretan zara, momentuan ez.

**Zein egoeratan dagoz erromeria?**

Euskal erromeria amaitzear dago. Administrazioaren aldetik ez dago laguntzarik. Esate baterako, hasten bazara beste bategaz trikixea jotzen, zerga piloa pagau behar dozu. Hain profesionalizata dago dana ze. Eta ezin da mundu guztia profesional mailan sartu. Geurea mantenditu egin behar da eta zaindu. Ni ez nago kanpoko musikearen kontra, baina uste dot lehenengo-lehenengo gurea dala. Globalizazioa dala, eta internet dala, gazteak euskal musika gitxi ezagutzen dabe. Hemen Arratian bai, baina hortik bazoaz ez dabe ezagutzen ezer.

Bilboko jaietan, esate baterako, 8 berbena-edo izango ziran, ba Euskal Herriko hiru bat talde egon ziran, Drindots, Lisker eta Egan eta beste guztiak kanpokoak. Nik ezin dot ulertu zortitik hiru baino ez izatea euskaldunak. Bost edo sei izan behar dira.



## Euskara praktikoa

Arratiako Kubulu AEK euskaltegia



Agirre lehendakaria 4, Igorre

94 631 56 57 arratia@aek.org



Maila eta ordutegi guztiak.

Titulu ofizialak.